

3. Mantenugaietatik energia lortzeko, zenbait erreakzio kimiko gertatzen dira zelulen barnean.

a) Nola deritzo erreakzio kimiko horien multzoari?

☐

Metabolismoa.

☐

Heste meharreko xurgatze-prozesua.

☐

Zelula-arnasketa.

☐

Energia-iraizketa.


b) Prozesu hori gertatzeko, aireko oxigenoa behar da ezinbestean.

Zer ibilbide egin behar du oxigenoak zeluletara iritsi bitartean?

Idatzi beheko hitzak ordena zuzenean, aireak zer ibilbide egiten duen adierazteko:

traKea - bronKioloak - laringea - albeoLoak - odola - sudur-hobiak

brOnkioak - kapilarrak - zelulak - faringe



4. Fabriketan muntaketa-katea nola, antzera samar gertatzen da digestioa digestio-hodian: hodiaren leku batzuetan prozesu batzuk egiten dira, eta beste leku batzuetan prozesu haiek osatu eta beste batzuk hasten dira.


Lotu, gezien bidez, digestio-aparatuarekin lotutako hitz hauek:

- ☐ kiloa
- ☐ behazuna
- ☐ elikadura-
- ☐ boloa
- ☐ kimoa
- ☐ xurgatzea

- ☐ gibela
- ☐ urdaila
- ☐ heste-biloak
- ☐ hestea
- ☐ ahoa

5. Arnasketa-higidurak deritzegun bidez, kaxa torazikoa zabaltu edo uzkuritu eta birrikak handitu edo txikitu egiten dira, arnaskora edo arnasbehera den. Birrikak handitze eta txikitze hori saihestarteko giharrei eta diafragmari esker gertatzen dira, nagusiki.

Begiratu arretaz irudiari, eta osatu beheko esaldi honetako hutsuneak:



Airea sudurretik sartzen da.

Arnasketa-higidura ( ) denean, saihestarteko giharrak ( ) egiten dira, diafragma ( ) egiten da, eta biriketara airea ( ) da.